

JARDUEREN
TXOSTENA

2020



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Urterik ezohikoena

Bi mila eta hogeigarren urtea SARS-CoV-2 koronabirusaren pandemiak jo gintuen urtea bezala geratuko da etorkizunerako, arlo guztietan kalteak eragin ondoren: sozialak, ekonomikoak, pertsonalak, familiarrak, afektiboak... Munduko herrialde guztietan gertatu da, inongo mugak ezin izan duelako gelditu eta planeta osoaren eguneroko bizitza baldintzatu duelako. Bi mila eta hogeigarren urtea salbuespenezko urtea izan da -mingarriki salbuespenezkoa, zoritxarrez-, eta, zalantzarik gabe, hala adieraziko da edozein erakundek enpresak edo instituziok, publikoak zein pribatuak, argitaratzen dituen aurtengo memorietan. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jarduera Memoria honek ere gauza bera egiten du, hain zaila eta desberdina izan den urtean zehar egin dugun lana jasota.

Osasun-larrialdiaren ondoriozko salbuespenarekin batera, beste aldaera batek baldintzatu du 2020ko ekitaldia EGABren kasuan. Aldaera hori oso bestelakoa izan da, guztiz berezkoa baita gurea bezalako gizarte demokratikoetan: hain zuzen ere, hauteskunde

autonomikoen zita uztailean. Hauteskunde konpromiso orok legegintza-jardueraren geldiera dakar, eta moteltze hori erreleboak behar duen denboraldian luzatzen da, arduradun politiko berriek lanari berrekin arte. Egoera horrek zuzenean eragiten dio Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak duen funtsezko eginkizunari: irizpenak ematearen zereginari.

Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren erakunde aholku-emaille instituzionala izanik, EGABek lege-proiektuak jasotzen ditu, Kontseilua osatzen duten eragile ekonomiko eta sozial guztiek ikuskatu ditzaten. Dokumentuok zehatz-mehatz aztertu eta eztabaidatzen dira, erantzun-irizpenetan jasotzen diren hobekuntza-proposamenak, baldin badaude bateratzea lortu arte. Irizpen horien funtsezko balioa, Kontseilua osatzen duten eragile sozial eta ekonomikoek adostutako gogoetetan datza. Gogoeta horietan, Euskadiko ekonomia eta gizarte politikan interes ekonomiko eta sozial desberdinen parte-hartzea de facto eraginkorra egiteko proposamenak aipatzen dira.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Aipatu bezala, hauteskunde autonomikoen ospakizunak -hasiera batean apirilera aurreikusita- uztailen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpen-zereginaren murrizketa ekarri zuen, eta, beraz, Memoria honetan jasotako arlo horretako jarduera beste ekitaldi batzuetakoa baino kuantitatiboki nabarmen eskasagoa da. Horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiagoko gaiak zirenik; izan ere, garrantzi handikoak diren eta guztioi eragiten dizkiguten esparruei buruzko iritzia eman zituen Kontseiluak. Hala nola, Klima Aldaketari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuari buruzko irizpena eman zuen, Klima Ekintzetarako Itun Soziala bultzatzea proposatuz, Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko eta Garapen Jasangarrirako helburuekin bat etorrita. Gure gizartea kezkatzen duten beste gai batzuei buruz ere aritu ginen, etxebizitza arloan esate baterako, jenderik gabeko etxebizitzaren proiektu arautzaileari buruzko irizpenarekin, edo landa-garapenaren esparruan, arloko lege-aurreproiektuarekin, besteak beste.

Irizpenak emateko eginkizunaz gain, 2020rako Jardueren Memorian aurreko irizpenoi egindako jarraipena ere jasotzen da, gure iradokizunen eragina neurtuta, bai eta Kontseiluaren barne-organoez ezohiko urte horretan egindako lanen

eta bileren berri ere ematen da. Pandemiak behartu gintuen lan telematikoaren baldintzetara egokitzea eta hori EGABen gaitasuna ere aztertzeko frogatik bilakatu zen (konfinamendua, telelana, bideokonferentziaren bidezko bilerak...). Azterketa notaz gaintu genuela esan genezake, egin genituen Osoko Bilkuraren hamaika bilerek, Batzorde Iraunkorraren bederatzita batzarrek, Memoria Sozioekonomikoa idazteaz arduratzen den Batzordeak egindako hamabik edo Batzorde Ekonomikoak eta Gizarte Batzordeak egindako zita telematikoek ondo erakusten digutenez.

Amaierarako utzi nahi izan dut Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2020. urteko jarduerarik esanguratsuena, gainerakoak baztertu gabe. "COVID-19k Euskadin duen eraginari buruzko hurbilketa" izeneko ekimen propioaren azterlanaz ari naiz. Lan horretan, gure autonomia erkidegoko ekonomia eta gizarte esparruetan SARS-CoV-2 izan duen eragina lehen hilabeteetan aztertzen da, pandemiari aurre egiteko erakundeek eman dituzten erantzunak bilduz eta ondorioz ditugun erronkei buruzko hausnarketak eginez. Ikerketa honen bidez gure karpenean xumea egin diogu pandemiak Euskadiko Autonomia Erkidegoan jarri digun erronkari.



Emilia M. Málaga Pérez

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Presidentea

ZIHURTAGIRIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegiaren 16 b) artikuluan ezarri denez, besteak beste Jardueren Urteko Memoria onesteko eginkizuna du eratzikita Osoko Bilkurak.

Arautegian ezarritakoa betez, 2020ko ekitaldiari dagokion Jardueren Memoria egin da eta, hortaz, hauxe

ZIHURTATZEN DUT

Lehenik, Euskadiko eta Ekonomia Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2021eko otsailaren 24ko ohiko batzarrean, hau erabaki zuela, besteak beste:

“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2020ko Jardueren Memoria onestea”

Bigarrenik, Batzordearen Osoko Bilkurak aipaturiko erabakian onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik dakar argitalpen honek.

Eta ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Bilbon, 2021eko otsailaren 24an



Lorea Soldevilla Palazuelos

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Idazkari Nagusia

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

| | |
|--|----|
| Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseilueen Historia | 6 |
| Euskadiko EGAB. Sorrera eta Izaera | 6 |
| Eginkizunak | 7 |
| Osaera | 8 |
| Osoko Bilkuraren osaera | 9 |
| Organoak | 10 |
| Kontseiluaren araubide Ekonomiko-finantzariora eta bitartekoak | 11 |

II. KAPITULUA JARDUEREN TXOSTENA

| | |
|---|----|
| EGABen Legean ezarritako eginkizunak gauzatzea | 12 |
| Aurreko urteetako aholku-jadueraren eraginaren jarraipena | 22 |
| EAEko 2019ko Egoera sozioekonomikoari buruzko memoria | 23 |
| Azterlanak eta txostenak egitea | 27 |
| EGABen organoen bilerak | 29 |
| Batzorde egutegia | 35 |

III. KAPITULUA JARDUERA INSTITUZIONALA

36

IV. KAPITULUA BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

| | |
|--------------------------------------|----|
| 2020 aurrekontuak | 41 |
| Kontseiluaren zerbitzurako langileak | 42 |

V. KAPITULUA KOMUNIKAZIOAK ETA ARGITALPENAK

| | |
|--------------|----|
| Komunikazioa | 43 |
| Argitalpenak | 44 |

ERANSKINA. Euskadiko EGABren Araudioa

45

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA

EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO KONTSEILUEN HISTORIA

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak Lehen Mundu Gerraren amaieraren ondoko urteetan ditugu. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bureau delakoa sortu zen nazioarteko batzar gisa, eta bertan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek, parte hartzen zuten, lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria elkarrekin lantzeko xedez.

Harrezkero, ituntzeko lehen tresnak agertu ziren European, hau da, egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak. Lehen erakundea 1925ean sortu zen Frantzian, eta geroago antzeko beste batzuk agertu ziren Europako beste herrialde batzuetan, bereziki, Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak sortu zuen, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzordea. Funtsezko antzekotasunak daude horietan guztietan, beren izaerari eta eginkizunei dagokienez: organo aholku-emaileak dira, gobernuen politika ekonomikoan, gizarte- eta ekonomia-esparruetako ordezkarien parte hartzea ahalbidetzen dutenak eta, aldi berean, haien arteko elkarrizketa eta lankidetzak bideratzen dutenak.

Halaber, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak ez du jokabide pasiborik, ezpada, berezko ekimena direnak direlako gobernu eta parlamentuek kontuan izan beharko lituzketen proposamenak edo ebazpenak mahairatzeko orduan. Aholkuak emateko organoa den aldetik, autonomia eta lokabea da gobernutik eta parlamentutik, eta haren txostenak lotesleak ez badira ere, aginduzkoak dira kasu askotan. Nolanahi ere, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ematen du kontseiluak.

EGAB. SORRERA ETA IZAERA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta ekonomia eta gizarte ordezkariak Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean parte hartzea du xede.

4/1984 Legearen bidez sortu zen, eta haren arauak hainbat lege aldaketa izan dituzte. Egun, hauetan ezarritakoak eraentzen du EGAB: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legea, urriaren 29ko 433/2013 Dekretua eta 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren erabakiak onetsitako Funtzionamendu Arautegia.



EGABek nortasun juridiko propioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena ez bezalako, eta ahalmen eta beregaintasun osoa du legeak eratziki dizkion eginkizunak betetzeko.

EGABren egoitza Bilbon dago, eta bertan egiten dira Kontseiluaren organoen bilkurak.

- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, hura arautzen duen legearen arabera. Aurretiatzko txosten horretatik daude salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege proiektuak, baita berau aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauak ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak edukiaren berri eman behar dio EGABi
- Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren ustez, garrantzi berezikoak badira. Proiektu horretatik daude salbuetsita aurreko ekitaldietan onetsitakoen jarraipena dakarten dekretu proiektuak edo berrikuntza edo aldaketa nabarmenak ez dakartenak ere. Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, aukeran, gai horien inguruko txostenak eska diezazkioke kontseiluari.
- Aginduzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzak hartutako beste edozein administrazio ebazpenen inguruan, politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta badaude eta Laneko Harremanen Kontseiluari bere lege arau-emaitan dagozkion arloak alde batera utzita, betiere Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira.
- Nahitaezko txostenak ematea Eusko Jaurlaritzak politika ekonomiko eta sozialaren arloan dituen plan orokorrei buruz.
- Aurreko ataletan aipaturiko arloei buruzko proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.
- Bere ekimenez edo Eusko Jaurlaritzak nahiz Legebiltzarrak eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, lehen bi ataletan aipaturiko arloei dagozkienak.
- Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera ekonomikoari buruz eginiko plangintzan parte hartzea.
- Urtero-urtero memoria bat egitea eta Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari helaraztea. Memoria horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko iritziak azaldu behar dira
- Bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eskatzea eta jasotzea administrazio orokorretik eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein erakundetatik.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

OSAERA

Hogeita hamabi kide osatzen dute EGAB. Honako hauek, hain zuzen:

- Zortzi kide sindikatu-erakunde eta -konfederazio nagusien ordezkartzan.
- Zortzi kide enpresa-konfederazioen ordezkartzan.
- Kide bana Euskal Autonomia Erkidegoko ondoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteen ordezkartzan:
 1. Merkataritza, industria eta itsasketa ganberak.
 2. Aurrezki kutxak eta finantza erakundeak.
 3. Kooperatibak.
 4. Lan-sozietate anonimoak.
 5. Arrantza erakundeak.
 6. Nekazaritza erakundeak.
 7. Kontsumitzaileen erakundeak.
 8. Gizarte ekintzaren hirugarren sektoreko erakundeak.
- Zortzi kide EGABen eginkizunei lotutako arloetan adituak.

EGABek presidentzia du. Arestian adierazitako pertsonaren bat burua ez bada, kideen kopurua hogeita hamahirukoa izango da. Kontseilukideak lau urterako izendatzen dira



Kontseiluaren osaera:

PRESIDENTEA: Emilia M. Málaga Pérez

IDAZKARI NAGUSIA: Lorea Soldevilla Palazuelos

TITULARRAK

ORDEZKOAK

A TALDEA

Sindikatuaren erakunde eta konfederazioen ordezkartzan

CCOO

UGT

TITULARRAK

Garbiñe Espejo Jairo
Oskar Arenas Velasco
Jone Robledo Zapatero
Santiago Martínez Pérez
Estibaliz Montero Mendoza

ORDEZKOAK

Arantza Martínez Tobalina
Alfonso Ríos Velada
Francisco Juan Osuna Matamoros
Jorge Hurtado Abrisqueta
Gregorio Martín Benito

TITULARRAK

Maribel Ballesteros Martínez
Raúl Arza Vélez
Esperanza Morales Quicios

ORDEZKOAK

Daniel González Taboada
Xuria Arza Vélez
Carlos Trevilla Acebo

B TALDEA

Enpresa konfederazioen ordezkartzan

Pablo Martín Goitia
Virginia Múgica Conde
Gonzalo Salcedo Bilbao
Fco. Javier Sasigain Sáez de Buruaga
Adolfo Rey Gómez
Yoana Arambalza Zalbidea
Aitor Otaola Díez de Alda
Nerea Zamácola Gárate

Eduardo Arechaga Cilleruelo
Fernando Raposo Bande
Silvia Ara Quincoces
Ana García Polanco
Ana Boto Sánchez
José Miguel Ayerza Mendiburu
Julián Ruiz Gutierrez
Juan Ugarte Aguirrezabal

C TALDEA

EAEko sektore, erakunde edo elkarte bakoitzaren ordezkartzan

Merkataritza, Industria eta Nabigazioa

Jesús María Corres Santos Eduardo Mozo de Rosales Fano

Kooperatibak

Patxi Olabarria Furundarena Francisco Javier Sanz Santaolalla

Arrantza Erakundeak

Aurelio Bilbao Barandica Luis Francisco Marín Andrés

Gizarte Ekintzako Erakundeak

Ana Alzaga Menaza Jon Ariño Gallego

Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak

Pedro Martínez de Alegría Pinedo Rafael Aranguren Ilardia

Lan Sozietate Anonimoak

Olatz Jaureguizar Ugarte Javier Muñecas Herreras

Nekazaritza Erakundeak

Garikoitz Nazabal Etxabe Iñigo Bilbao Rekaorri

Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko Erakundeak

Gonzalo Rodríguez Aguirreogitia Iñigo Vidaurrazaga Vidal

D TALDEA

Izendaturiko Adituak

Joseba Madariaga Ibarra
Begoña Pedrosa Lobato
Aitor Alzola Martínez de Antoñana
Arantza Estefanía Larrañaga
Fernando Fantova Azcoaga
Jon Barrutia Güenaga
Itziar Alkorta Idiakez
Osane Oruetxebarria Fernández de la Peña

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ORGANOAK

OSOKO BILKURA

Presidenteak zuzentzen duen Osoko Bilkura dugu Kontseiluaren erabakiak hartu eta bere nahiak agertzeko organo gorena. Presidenteak, kontseilukideek eta Idazkari Nagusiak osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura. Osoko Bilkurak ondoko eskumenak dauzka:

- Presidentearen bete behar duen pertsona proposatzea Lehendakariari eta, Osoko Bilkuraren arlo horretako erabakirik egon ezean, kargua bete behar duen pertsonari buruzko kontsulta jasotzea Lehendakariaren eskutik.
- Kontseiluari esleituriko eginkizunak betetzean, erabaki egokiak hartzea.
- Jardunbideari buruzko barne arautegia prestatu eta onartzea, bai eta Kontseiluaren jardunbide-arautegia gara dadin beharrezkoak diren artezpideak eta jarraibideak onartzea ere.
- Lan-batzordeak sortzea eta desegitea, haien eskumenak eta jardunbide-arautegia zehaztea .
- Kontseiluaren aurrekontua onestea.
- Kontseiluaren langileria onestea, aurrekontuan sartzeko.
- Bateriaezintasunak aztertzea eta Kontseiluko edozein kontseilukideren betebeharrak bete ez direla adieraztea.

Batzorde Iraunkorra

Jardunbideari buruzko arautegiak sortu duela, Batzorde Iraunkorra EGABeko Presidenteak, Idazkari Nagusiak eta Kontseilua osatzen duten talde bakoitzeko lau kidek ere osa dezakete. Bere eginkizunen artean, aipatzekoa da Batzordearen Osoko Bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

Lan Batzordeak

Osoko Bilkuraren eginkizuna da lan-batzordeak sortzea eta horiei aginpideak esleitzea.

Lan-batzordeak ondokoak dira::

- **Gizarte Garapenerako Lan-batzordea**, Fernando Fantova Azcoaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Ekonomiaren Garapenerako Lan-batzordea**, Arantza Estefanía Larrañaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.
- **Memoria Sozioekonomikoa prestatzeko Lan-batzordea**, Jon Barrutia Güenaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.

Pertsona bakarreko organoak

Kontseiluak pertsona bakarreko bi organo ditu, Presidentzia eta Idazkaritza Nagusia.

Presidentzia

Kontseiluaren ordezkari du eta horren jarduerak artezten ditu; gainera, bilkuren deiak egin, horietan buru jardun eta moderatu egiten ditu. Gaur egun, Emilia M. Málaga Pérez da Presidentea.

Idazkaritza Nagusia

Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu teknikoak zuzentzen ditu, Kontseiluaren funtsen gordailuzaina da eta dokumentazioa zaintzen du. Gaur egun, Lorea Soldevilla Palazuelos da Idazkari Nagusia.

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipioa betez, bere aurrekontua onetsi eta betearazten du Kontseiluak. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako zenbatekoaren bidez finantzatzen da aurrekontua.

Kontseiluak zortzi langile ditu eta, erakundearen lege arautzailearekin bat etorritik, Lan Zuzenbidearen arabera lan-harremanaren bidez lotzen zaizkio Kontseiluari.

Kontratatzerakoan, Kontseiluak sektore publikoaren kontratuen arloan indarrean dagoen legeria bete behar du, herri administrazioetat jotzen den erakundea baita.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

II. KAPITULUA
JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

EGAB-EN LEGEAN EZARRITAKO EGINKIZUNAK GAUZATZEA

1/20, IRIZPENA “Profesional sanitarioen informazio-sistemaren dekretu-proiektuari” buruzkoa

IRIZPENAK EMATEA:
EGABren Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2020an Batzordeak zazpi irizpen eman zituen, bi lege-aurreproiektuei buruzkoak eta gainerako bostak dekretu-proiektuei buruzkoak.

Sarrera data: 2019ko abenduaren 19a.

Batzordea: Gizarte Garapeneko Batzordea.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako proiektu honen izapidetzea.

Arauk Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun-arloko Profesionalen Informazio Sistema ezartzen du, osasun-prestazioei dagokienez herritarren eskubideak gauzatzeko eta osasun-sistemako giza baliabideak behar bezala planifikatzeko helburu nagusiarekin, eta izaera publikoa duten profesionalen datuak zehazten ditu.

EGAB bat dator proiektuaren helburuekin, bat dator arau-testu horren edukiarekin, eta beharrezkotzat eta justifikatutzat jotzen du. Hala ere, testua hobetzeko zenbait ohar erantsi ditu. Besteak beste, gogorarazi du dekretu-proiektua Euskadiko Osasun Kontseilura bidali zela, eta orain arte organo hori ez dela bildu bere iritzia emateko. Beraz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren ustez, izapide hori egin ezean, saihestu egiten da osasun-zerbitzuetan lanbide-jardueran eragina duen gai baten erregulazioan beharrezkoa den parte-hartzea eta solaskidetzea.

Kontseiluaren ustez, deigarria da, halaber, Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileak berariaz ez aipatzea, aseguru-erakundeekin parekatuta. EGABen ustez, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren baimenaren bidez eratutako enpresaburuen elkarte pribatuak dira, eta baliabide eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituzte; beraz, proposatutako lege-testuan sartu behar dira. Azkenik, ohartarazi du EAEko kontseilu aholku-emaileari bidalitako testuak ez duela nahitaezko memoria ekonomikoa eransten, eta dokumentu hori dekretu-proiektu guztiekin batera aurkeztu behar dela.

1/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

2/20 IRIZPENA, "Industria-segurtasunaren dekretu-proiektuari" buruzkoa

Sarrera data: 2019ko abenduaren 23a.

Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du proiektua izapidetzea. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak egin du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko Legea (azaroaren 12ko 8/2004 Legea) garatzea du helburu, industria-segurtasunari dagokionez.

Edukia baloratu aurretik, EGABek azpimarratzen du ez dagoela memoria ekonomikorik igorritako testuan, arauaren balorazio osoagoa egiteko aukera emango lukeena. Oro har, Kontseiluak proiektuaren egokitasuna balioesten du, arlo horretan dauden prozedurak antolatu, bateratu eta sistematizatzen dituelako, eta bereziki egokitzat jotzen duelako prozeduren finkapen eta arrazionalizazio hori betebeharrak berririk sortu gabe egituratzea eta erantzukizunpeko adierazpenaren sistema finkatzea, baimen-adierazpenaren aldean.

Hala ere, irizpenak legegintza-teknikaren hobekuntza batzuk iradokitzen ditu, besteak beste, proiektuan jasotako definizioak hobeto zehaztea eta dekretu hau Industriaren Legearekin gehiago koordinatzea, lege horren erregelamendu-garapena baita.

Era berean, uste du komeniko litzatekeela arau berriari gaiarekin lotutako beste dekretu bat sartzea (29/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, industria-jardueren hasiera-araubideari eta industria-erregistroari buruzkoa), bi erregistro batera egon ez daitezela (industria-erregistroa eta industria-segurtasuneko instalazioen erregistroa), are gehiago industria-segurtasuneko zehapenetarako hirugarren erregistro bat sortuko bide dela kontuan hartuta.

Azkenik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea ez dago ados Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran erakunde sindikalen ordezkariarik ez egotearekin, eta uste du ez-egite hori eskubide sindikalak mugatzea dela eta diskriminatzailea dela. Hori dela eta, proposatu du erakunde sindikalek kontseilu horretan duten parte-hartzea enpresaren ordezkarietarako parekotasun-baldintzetan egitea.

2/20 irizpenaren jarraipena:

2020ko ekainaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak proposatuta, industria-segurtasunari buruzko Dekretua onartu zuen, eta gero EHAAn argitaratu zen uztailaren 14an.

Laburbilduz, esan daiteke onartutako testuak aldaketa gutxi izan dituela, edukiaren funtsa aldatzen ez dutenak, baina, Batzorde honi proposatutako testuari dagokionez, kendu egin da "zehatzeko ahala" arautzen duen kapitulua. Irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak positibotzat jo zuen ekimena, eta hainbat ohar orokor eta espezifiko egin zituen haren artikuluei buruz. Horietatik % 18 baino ez dira kontuan hartu.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

3/20 IRIZPENA, "Klima Aldaketaren Euskal Legearen Aurreproiektuari" buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapeneko Batzordea.

Sarrera data: 2019ko abenduaren 20a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurkeztutako Klima Aldaketari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua izapidetzea. Batzordearen Osoko Bilkurak 2020ko otsailaren 12an onartu zuen irizpena.

Lege-aurreproiektuaren xedea da arau-esparrua ezarriko duen arau bat aldarrikatzea, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak hartzeko, eta, beranduenez, 2050. urterako, garapen jasangarriaren bidez, karbonoan neutroa eta erresilientea den ekonomia baterantz aurrera egiteko.

Kontseiluak oso positiboki baloratzen du klima-aldaketari buruzko euskal lege bat egiteko ekimena. Lege horren ikuspegia, ikuspuntua eta egitura bat datoz, oro har, egiten dituen gogoeta orokor eta espezifikoei kalterik egin gabe. Uste du berariazko arau-esparru propioa izateak aukera emango diola Euskadiri bere ambizioei baldintza hobetan ekiteko eta Euskadirentzat eta kolektibitatearentzat ekarpen hobea egiteko; izan ere, klima-aldaketaren aurkako borroka erantzukizun kolektiboa eta partekatua da, eta maila instituzional guztiek parte hartu behar dute beren gaitasunen esparruan. Halaber, Europako Itun Berdearen garapenak Estatuarentzat eta Euskadirentzat ekarriko dituen Europako betebeharrak betetzeko, beharrezkoak diren tresna juridikoak eduki beharko dira.

Lege-aurreproiektuak klima-aldaketari buruz jorratzen duen mehatxuaren aurrean, irizpenak bat egiten du hura bultzatzen duen filosofiarekin. Horren arabera, Euskadik karbonoan oinarritutako ekonomia oparo, moderno, lehiakor eta neutroaren aldeko apustua egin behar du, eta jakintzaren ondoriozko klima-aldaketari aurre egiteko ekintza-politika batean oinarritu behar duen garapen jasangarria lortu behar du, berrikuntza eta garapen teknologikoak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko. Hala ere, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ohartarazi du eredu ekonomikoaren eraldaketa horrek ez dituela epe labur/ertainean eragin berak izango jardura eta sektore ekonomiko guztietan. Alde horretatik, positibotzat jotzen du "trantsizio ekologikoarekiko kalteberak diren sektoreak" esplizituki aipatzea, ekoizpen-egoera berri baterantz igarotzea bidezkoa eta sozialki onuragarria izan dadin gizarte osoarentzat. Hala eta guztiz ere, Kontseiluak uste du Bidezko Trantsizioaren printzipioari buruzko aipamenak leku garrantzitsuagoa hartu beharko lukeela legean, Zioen Azalpenean eta artikuluetan aipamen esplizitua eginez, eta gehien erasandako edo gehien eraldatu beharreko sektoreei eta jardueri laguntzeko asmo handiko programa bat aurreikustearen alde egiten du.

Klima-ekintzaren erronkak ekonomia- eta gizarte-eredua sakon eraldatzea eskatzen du. EGABen ustez, ezinbestekoa da herrialdeko gizarte- eta politika-kultura eraldatzea, eta gizarte osoa inplikatzeko. Ildo horretan, iradokitzen du kontuan har dadila Ekintza Klimatikorako Itun Sozial bat bultzatzeko aukera, "Karbonoan neutroa den eta klima-aldaketarekiko erresilientea den lurralde baterantz igarotzeko", non konpromiso kolektiboa eta lankidetzaren estua islatuko den. Agenda 2030en Garapen Iraunkorraren helburuekin bat dator, eta helburu horien artean dago, hain zuzen ere, gobernuen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko aliantzak eraikitzea, baterako jarduerak garatzeko, balio eta ikuspegi partekatuetan oinarrituta. Ekintza Klimatikoaren aldeko Itun Soziala beste itun eta jardura sektorial/tematiko batzuen erreferentzia eta kohesio esparru gisa balioko luke.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak euskal enpresa-sareko jardura eta sektore guztien lehiaketa ere aipatzen du, euskal ekonomia, ekoizpen-sistemak eta aurreproiektuak zuzentzen dituen negozio-ereduak sakon eraldatzeko erronka berria beharko duena, ekonomia deskarbonizatzea eta zirkulatzea baitu helburu. Horregatik, elkarlanak eta konpromiso publiko-pribatuak aldaketa horretarako izango duten garrantzia azpimarratu du

3/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

Kontseiluak. Horri dagokionez, aurreproiektuak bultzatu nahi duen lankidetzaz indartzeko proposamenak egiten ditu irizpenak.

Alde batetik, modu esplizituagoan balioestea euskal enpresak, sektoreko langileek eta profesionalak azken 30 urteetan ingurumen-politikak ezartzeko egin duten ahalegina eta ekarpena, eta politika horiek, enpresek, langileek eta eragile ekonomiko eta sozialek ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa berri honetan betetzen jarraituko duten eginkizuna txertatzea. Bestalde, erakundeen sareak garatzeko ekimen pilotuak bultzatzeko aukera, beste arlo batzuetan egiten ari direnarekin bat etorritik, kontuan hartuta enpresek jarduera zehatzak garatzeko betebeharrak dutela, lege berri honetatik abiatuta hartzen diren eta garatzen dituzten legezko konpromisoak eta betebeharrak bete ahal izateko.

Euskadik klima-aldaketaren arloan duen lidergoa indartzeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea bat dator ideia horrekin. Hala ere, Kontseiluak lidergo erreala eta posibilista sustatzearen alde egiten du, eta Euskadiko lidergo klimatikoa enpresa hobek eta lehiakorrek, gizarte garatuagoa eta planeta osasuntsuagoa sortzearen sinonimo izatearen alde. Testuinguru horretan, iradokitzen du isuriak murrizteko helburuek, erregelamendu bidezko garapenean eta Klima 2050 Estrategiaren eguneratzean ezartzen direnek, EBk ezarritako gidalerroei jarraitzea, eta helburu errealistak izatea, betiere euskal enpresa-sarearen errealtatea, jarduera ekonomikoen ezaugarriak eta dinamika espezifikoak, egin beharreko aldaketan bideragarritasun ekonomiko eta gauzatzearen bideragarritasuna, eta dagoen ezagutza eta garapen teknologikoa aintzat hartuz. Hori guztia pixkanaka eta arian-arian aplikatuz denboran zehar, EBk zehaztutako epeak erreferentziatzen hartuz.

Irizpenak 2019an izapidetu eta onartu diren legeak ere aipatzen ditu, hala nola EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legea edo EAEko Mugikortasun Jasangarriari buruzko Legea, eta, are gehiago, Landa Garapenari buruzko Legearen Aurreproiektua, eta Kontseiluaren ustez, Klima Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua onartu ondoren egin behar ziren, haren baitako gaiak garatu besterik ez baitute egiten. Ondorioz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak dio Klima Aldaketari buruzko Legea zeharkako "Esparru Legea" dela, eta gidalerroak finkatzen dituela arlo eta eremu sektorialetan, hala nola energian, garraioan, hezkuntzan edo nekazaritzan. EGABen ustez, hiru lege horiek izapidetzeko sekuentzia ez da egokiena izan, eta berretsi egiten du Klima Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua izan dadila, nolahi ere, lehen aipatutako gainerako legeetarako erreferentziatzeko araua, bai eta haien artean egon daitezkeen desadostasunak argitu eta behar bezala koordinatuko dituen jarraibide-araua ere.

Kontseiluak fiskalitate berdeari buruzko iritzia eman du, eta azpimarratu du une honetan Euskadirentzat komenigarria eta garrantzitsua dela "fiskalitate berde" harmonizatua ezartzea eta garatzea, enpresa-lehiakortasunera bideratua, ibilbide luzekoa eta egonkorra, euskal enpresa karbonogabetasunaren arloko Europako legedi berrira seriotasunez eta errealtatez egokitzea.

Era berean, adierazi nahi du garrantzitsua dela V. kapitulua, tresna sustatzailei buruzkoa, behar bezala eta eraginkortasunez garatu ahal izatea; izan ere, uste du funtsezkoa izango dela enpresei laguntzeko prozesuan, modu ordenatuan eta epe luzerako inbertsioekin, beren ekoizpen- eta negozio-sistemak eraldatzeko abagunea izan dezaten. Gaineratu du, arrazoi horregatik, bere ustez, gai honek euskal administrazio desberdinen adostasuna behar duela eta arestian aipatutako Herri Itunaren esparruan garatzeko aukera egon daitekeela.

Ontzat jotzen da aurreproiektuari emandako idazketak aukera ematea esleipen-organoei, hala badagokio, modu arrazionalizatuan eta xedea indargabetu gabe, klima-aldaketari buruzko klausula sozialak ezartzeko.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Administrazioa ondo kudeatzeari eta sinplifikatzeari dagokionez, Kontseiluak proposatzen du Erregistro berriak erregistroak arrazionalizatzea, euskal administrazioaren ingurumen-arloko informazio-sistemen elkarreragingarritasunaren bidez, eta enpresei saihestea erregistro berri horretan beste iturri batzuekin bat datozen adierazleak eta dokumentazioa aurkeztu behar izatea.

Irizpenak gobernantzari lotutako organoen ugaritasunari buruzko gogoetak ere egiten ditu, eta horrek nahasmena sor lezake eta zailagoa izan liteke politika argi eta uniforme baten koordinazioa, ezarpena eta jarraipena. Horregatik, Kontseiluak iradokitzen du gogoeta bat egitea aurreikusitako organo berri guztiak sortzeko benetako beharrari eta horien funtzioei buruz.

Nabarmendu behar da, halaber, bai Estrategiarako bai Klima Aldaketari buruzko Planetarako ezarritako epeei dagokienez, Kontseiluak zabalegizat jotzen dituela, kontuan hartuta gaiari buruzko ezagutzaren aurrerapena azkarra dela, bai errealtatearena berarena, bai Klima Aldaketarekin zerikusia duten arloetan eragina duen legediarena. Era berean, Kontseiluaren ustez, Legearen helburuak betetzea ahalbidetzen duten tresnak emateko ezarritako epeek ez dute aukerarik ematen bost urte igaro arte ikusteko zer kidegok ahalbidetzen duen horietako asko betetzea. Hala, ondorioztatzen du epeen gaiak arintasun handiagoa eskatzen duela klima-aldaketaren aurkako ekintzaren presaren aurrean, eta egokia dirudi horiei buruzko gogoeta bat planteatzea, epe doituagoak bultzatze aldera.

4/20 IRIZPENA, "Landa Garapeneko Legearen Aurreproiektuari" buruzkoa

Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea

Sarrera data: 2019ko abenduaren 20a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak igorritako lege-aurreproiektua izapidetzea. Arau berriak ordeztu egin nahi du indarrean dagoen Landa Garapenari buruzko Legea (10/1998 Legea, apirilaren 8koa), zeinak, lurralde-kohezioaren ikuspegitik, helburu estrategikoak eta sektorialak birdefinituko baititu, landa-ingurunearen gobernantza-eredua berregituratuko baitu eta plangintza-, kudeaketa- eta finantzaketa-tresna berriak sartuko baititu.

Gaur egun, EAEko landa-ingurunearen ezaugarri nagusiak honako hauek dira: despopulazioa, zahartze-indize handiak, biztanleria aktiboaren murrizketa, ekoizpen-dibertsifikazio eskasa eta gazteentzako eta emakumeentzako aukera-falta. Lege-aurreproiektuak aukera-berdintasuna eta ekonomia- eta gizarte-kohezioa bermatuko dituen lurralde-mailako landa-garapena sustatu nahi du, garapen iraunkorra lortzeko.

Alde horretatik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ontzat jo du araua, baina haren edukia aztertu aurretik eta aurretiazko gai gisa, azpimarratu du komenigarria izango zatekeela gai horri heltzea Erkidegoko Nekazaritza Politika berria zehaztu ondoren, landa-garapenaren finantza-, lege- eta arau-esparru berria eratuko lukeelako.

Organo aholku-emailearen irizpenak aurreproiektuan jasotako jardura ekonomiko tradizionalak modernizatzeko eta profesionalizatzeko proposamenak baloratzen ditu; besteak beste, ekintzailatza sustatzea eta emakumearen presentzia sustatzea, nahiz eta laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako lan-ildo baten falta sumatzen den, lehen sektorea izanik laneko ezbeharrek gehien eragiten duten sektoreetako bat.

4/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

Halaber, Kontseiluak uste du proposatutako landa-garapeneko planen gobernantza berriaren zutabeen artean lankidetzaren publiko-pribatua dagoela, nahiz eta ez duen ulertzen lankidetzaren hori irabazi-asmorik gabeko elkarrekin mugatzea eta beste parte-hartze mota bat baztertua.

Aurreproiektua hobetzeko planteatutako gaien artean, EGABek proposatzen du nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako sektorearen ezinbesteko garrantzia nabarmentzea, landa-garapenaren ardatz egituratzaile gisa, garapen teknologikoko helburuek, paradoxikoki, tradizioz tokikoak eta landakoak izan diren jardueren kaltetan jardun ez dezaten. Era berean, landa-garapenaren eta klima-ekintzaren arteko erlazioa sendoago azaltzea proposatu du, eta izapidetzen ari diren legeak behar bezala koordinatzeko beharra gogorarazi du; lege horri dagokionez, koordinazio berezia iradokitzen du Klima Aldaketari buruzko Legearen, Natura Ondareari buruzko Legearen eta Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Legearen aurreproiektuekin.

Azkenik, Kontseiluak eskatu du ordezkari handiena duten enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapeneko Politikaren Kontseiluan sartzea.

5/20 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta ur kontinentaletako arrantza-turismoari eta arrantza-erakustaldiei buruzko dekretu-proiektuari" buruzkoa

Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea

Sarrera data: 2020ko otsailaren 4a.

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta ur kontinentaletako arrantzari eta arrantza-frogapenei buruzko dekretu-proiektua izapidetzea. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak aurkeztu du proiektua, eta Osoko Bilkurak onartu zuen, 2020ko otsailaren 26an.

Arauaren xedea da itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin guztiz edo partzialki lotutako jarduerak arautzea arrantza-sektorearen jardura osagarri gisa, arrantza-sektorea osatzen duten pertsonen errentak hobetzea edo osatzea ahalbidetzen dutenak, eta dekretu-proiektuaren aplikazio-eremuan aurreikusitako jardura zehatz gisa jasotzen dira arrantza-turismoa eta arrantza-erakustaldia.

Kontseiluak bere irizpenean dioenez, arau hau ekimen interesgarria eta positiboa da jardura ekonomiko berriak eta dibertsifikazio-jarduerak behar dituen sektore batean jardura-, diru-sarrera- eta enplegu-iturri gehigarri bat emateko, azken hamarkadetan arrantza-jarduerak izan duen gainbehera handiaren ondoriozko egoera sozioekonomikoari erantzuteko.

Turismo-arrantzako jarduerak eta arrantza-erakustaldiak ez dira soilik arrantza-jarduerak; aitzitik, hainbat dimentsio dituzte, eta horietan ere eragin positiboak izango dituzte. Arrantza-arlokoak ez ezik, turistikoak ere badira, eta aukera ematen dute arrantzari, haren tradizioei eta kulturari lotutako baliabide turistiko berriei balioa emateko, Euskadiko eskaintza turistikoaren dibertsifikazioan sakonduz eta bisitariari turismo jasangarriaren benetako esperientzia eskainiz. Eta kulturalak eta hezitzaileak ere badira, eta aukera ematen dute gizartearen arrantza-mundura, haren lanbideetara eta tradizioetara hurbiltzeko.

5/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Kontseiluak positiboki baloratzen du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak dekretu-proiektu hau egiteko duen ekimena. Horretarako, oinarri juridiko sendoa ematen du, eta Euskadin turismo-arrantzan eta arrantza-erakustaldian jarduteko erregulazio propioa garatzen du; izan ere, arauketa-premia bat bazen, eta, horri esker, jarduera batzuk abiarazi ahal izango dira, eta jarduera horiek diru-sarrera osagarriak, nahiz eta potentzialki marjinalak, emango dizkiote arrantza-sektoreari eta dinamismo handiagoa kostako herrietako turismo-sektoreari.

Dekretu berriak Europako Itsas eta Arrantza Funttsaren programazioan aurreikusitako arrantza-turismoko proiektuak egitea eta jarduera horiei esleitutako Europako laguntzak aprobetxatzea erraztuko duen tresna juridikoa ere ematen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko itsas uretako eta ur kontinentaletako turismo-arrantza eta arrantza-erakustaldiak arautzeko ekimenak merezi duen balorazio positiboa adierazi ondoren, EGABen irizpenak dekretu-proiektuaren ikuspegia eta edukia oro har partekatzen jarraitzen du, eta hobetu beharko liratekeen gai jakin batzuei buruzko gogoeta orokor eta espezifiko batzuk planteatzen ditu. Horien artean, azpimarratzekoa da turismo-arrantzako eta arrantza-erakustaldiko jarduerak abian jartzeko beharrezkoak diren segurtasun-elementuek lotutako kostuak ekar ditzaketela. Hori dela eta, Kontseiluak iradokitzen du laguntza-lerroak prestatzea, arrantza-jarduerak eta turismo-arrantzako jarduerak ontziei egin beharreko egokitzapenekin bateragarri egiteko, segurtasun-elementu berriak diruz lagunduz, arrantza-jarduera konbentzionalarekin lotutako ontzien ezaugarriak aldatu gabe.

6/20 IRIZPENA, "Jenderik gabeko etxebizitzak arautu eta benetan okupatuz bere funtzio soziala betetzeko neurriak ezartzen dituen dekretu-proiektuari" buruzkoa

Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea

Sarrera data: 2020ko otsailaren 4a.

6/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

Emaizta: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da hutsik dauden etxebizitzak arautzeko eta benetan okupatuz eginkizun soziala betetzeko neurriak ezartzeko dekretu-proiektua izapidetzea. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egin du proiektua, eta Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu zuen 2020ko azaroaren 16an.

Dekretu-proiektuaren xedea da Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 56. artikulua erregelamendu bidez garatzea, eta hutsik dagoen etxebizitza arautzea, bai eta benetan okupatuz bere funtzio soziala betetzera bideratutako neurriak ere.

Nazioarteko eta barneko ordenamendu juridikoetan etxebizitza-eskubidearen xede diren aldarrikapen handiak gorabehera, biztanleek etxebizitza duin bat kostu eskuragarrian eskuratzeko dituzten zailtasunek egunerokotasunean jarraitzen dute, eta gure gizartean oraindik egiteke dagoen erronka da hori gauzatzea. Euskadin, Eusko Legebiltzarrak 2015eko ekainaren 18an onartutako Etxebizitzaren Legeak jauzi kualitatibo bat ematen du aldarrikapenak gauatzeko bidean, eskubide subjektibo gisa aitortzea eta etxebizitzaren funtzio sozialaren edukia definitzea aurreikusten baititu.

Kontseiluak, bere irizpenean, aintzat hartzen ditu ibilbide hori eta esparru horrek etxebizitza duin bat eskuratzeko eskaintzen dituen aukerak, nahiz eta oraindik bide luzea egin behar den ahalegin horretan, eta garrantzitsua da administrazio publiko guztien ahaleginak areagotzen jarraitzea.

Testuinguru honetan, Kontseiluak adierazi du Etxebizitzari buruzko Legea aplikatzeko erregelamendu-garapena behar dela, eta garapen horri ez zaiola askorik ekin, besteak beste, gaur egun ebatzita dagoen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoaren ondorioz. Errekurtso horren mende egon dira Legearen xedapen batzuk, hala nola hutsik dauden etxebizitzak arautzen dituen eta etxebizitza horiek benetan okupatuz eginkizun soziala betetzeko neurriak ezartzen dituen dekretu-proiektuaren gaia.

Etxebizitzaren Euskal Legeak elementu berritzaileen artean du, halaber, etxebizitzaren funtzio sozialaren irismenari eta edukiari buruzko alderdi berriak sartzea, hala nola kontserbazio-, mantentze- eta birgaitze-eginbearra edo jenderik gabeko etxebizitzari buruzko erregulazioa, justifikaziorik gabeko okupaziorik eza funtzio sozialaren ez-betetze gisa ulertuta. Horixe da, hain zuzen ere, jenderik gabeko etxebizitza, eta Etxebizitzaren Legearen IX. kapituluko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak eta funtzio soziala egoki erabiltzeko berme juridikoak osatzen dituzten xedapenen zati bat, dekretu-proiektuaren erregelamendu-garapenaren xede dena.

Irizpenak dekretu-proiektuaren edukiari buruz egiten dituen gogoetak alde batera utzi gabe, Kontseiluak egokitzat jotzen du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ekimena, Etxebizitza Legearen beharrezko arau-garapenari ekitekoa, hutsik dauden etxebizitzari buruzko alderdietan, baita ere funtzio soziala benetan okupatuz betetzeko neurriei dagokienez; izan ere, alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzeko eta herritar guztiek etxebizitza duina eskuratzeko aukera bermatzera bideratutako etxebizitza-politika publikoetan sakontzeko tresna berriak eskaintzen ditu, bizilekua edo erosteko ahalmena edozein dela ere. Kontseiluak helburu horiek guztiak partekatzen ditu.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Dekretu-proiektuaren edukiari dagokionez, neurri batzuk egokitzen jotzen dira etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzeko, partikularrak, hutsik dauden etxebizitzaren titularrak, merkatuan eskaintzera bultzatzen baitituzte; eta jabe horien askatasuna eta eskubide legitimoak errespetatuz egiten dute hori. Beste neurri batzuen helburua da desokupazio-egoerei eusteko pizgarriak kentzea, eta justifikatuzat jo daitezke, baldin eta zentzuzko terminoetan diseinatzen badira; hala, etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko eta dagokion erregistroan inskribatzeko prozedura, edo karga estafiskal gisa konfiguratutako urteko kanona.

Hala ere, V. kapituluan, nahitaezko alokairuaren eta nahitaezko desjabetzearen figurei buruzkoan, Kontseiluak uste du nabarmen hobetu behar dela kapituluaren planteamendua eta idazketa, eta dei egiten du kontuan hartzea herritarren oinarritzko eskubideei eragiten diela eta agintari publikoen esku dagoen azken errekurtsioa dela, eta, ondoren, birformulazioan horregatik kontuan hartu behar diren gaiak zehazten ditu.

Kontseiluak gogoeta horiek sakontzen ditu, eta adierazten du botere publikoek etxebizitza-politikak behar bezala gara ditzaketela, aipatutako sustapen-neurriak hartuz, edo ekintza zuzenagoak ezarriz, hala nola jabetza- edo alokairu-erregimeneko etxebizitzak sustatzea. Ekintza horiek, gainera, eraikuntzaren eta enpleguaren sektorea suspertzen lagun dezakete, eta egoki eta orekaz uztartzen dute botere publikoek etxebizitza duinak lortzeko duten betebeharra, jabetza pribatua errespetatuz eta beste partikularrentzat kaltegarriak diren ondorioak saihestuz.

Kontseiluak, halaber, hobetzeko alderdi jakin batzuei buruzko gogoeta espezifiko batzuk egin ditu, eta horiek sakontzea edo aldatzea komeni dela uste du. Atal honetan, 3. artikuluari buruzkoak nabarmendu behar dira; izan ere, etxebizitza bat bi urte baino gehiagor ez okupatzea justifikatzen duten arrazoien zerrenda ezartzen du, eta etxebizitza huts deklaratzeko prozedura hastea eragozten dute. Garrantzi berezia duenez, etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko prozedura bat abiaraztearen edo ez abiaraztearen arteko banalerroa taxutzean, eta behin hori abian dela, erabilera eskubidearen jabearentzat edo titularrarentzat ondorio larriak sortzen dituzenez, Kontseiluaren ustez arreta berezia behar duen xedapena da. Hala, bere ustez, jasotzen duen zerrenda oso murriztailea da, arrazoiak urriak dira eta ez dira kontuan hartzen gure gizartean oso ohikoak diren errealitate sozialak, etxebizitza bat okupatzea eragozten dutenak eta kontuan hartzekoak izan beharko luketenak. Orobat, uste du bigarren bizilekuko etxebizitzak kendu egin behar direla justifikazio-arrazoien zerrendatik, ez baitaude hutsik dauden etxeak. Azkenik, salmentan edo alokairuan eskainitako etxe bizitzetako buruz ezarritako epeak birformulatu eta argitu behar direla adierazten da, behar bezala ulertu eta aplikatzeko.

7/20 IRIZPENA, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.

7/20 Irizpena jarraitzea:

Txosten hau egiten ari den datan araua onartzeke dago.

Batzordea: Garapen Ekonomikoko Batzordea

Sarrera data: 2020ko abenduaren 4a

Emaitza: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak egindako proiektu hau izapidetzea, organo aholku-emaile honek egindako gogoetekin.

Hasierako dekretu arautzailean (109/2015 Dekretua, ekainaren 23koa) zenbait aldaketa egin dira aurretik. Egungo proposamenaren helburua da denbora-muga berri bat ezartzea, baldintzak betetzeko ezarritako epea amaitzen denean; horietako batzuk berrikustea, behin horien aplikazioa aztertuta; eta edukia 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berrira egokitzea.

Zehazki, eranskin berri bat sartu da, teknologia-zentroyen, ikerketa kooperatiboko zentroyen, enpresetako I+G unitateen eta eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza-eragileen betekizun espezifikoak eta aginte-koadroak jasoz. Eranskin horretan adierazten denez, aurretik akreditatuta daudenenentzat, 2020ko aginte-koadroyen xedeak indarrean egongo dira, harik eta denbora-muga aldatua duen beste bat argitaratzen den arte (espezializazio-ildoen kasuan izan ezik). Horri buruzko nahasketarik egon ez dadin, Kontseiluak uste du komenigarria dela testu kontsolidatu bat dagoela esplizituki adieraztea, "horretarako lotura erakutsiz; izan ere, gai berari buruzko arauketa ugariak, aurreko arauketako bizikidetzak, zenbait kasutan aplikagarri izaten jarraitzen duenak eta baldintzen etengabeko aldaketak nahasmena eragiten dute, baita segurtasun juridikorik eza ere".

Gogoeta espezifikoaren atalean, EGABek proposatu du argi eta garbi adieraztea I+G+Bren emaitzak merkataritza-arloan ustiatzeko aukera, osasun-ikerketako zentroyen kasuan. Eta atal horretan bertan, erakunde batzuetan eta funtzio batzuetan kuantifikatutako betekizun espezifikoak zergatik zehazten diren "ez ulertzea" ere ziurtatzen du, eta beste kasu batzuetan ez da gauza bera egiten.

Finantzaketa publikoaren eta pribatuaren mugei dagokienez, EGABek dio "ez dakiela nola ezartzen diren portzentaje horien oinarriak". Azkenik, doktorego-titulua merezimendutzat hartzea iradokitzen du, eta ez ikastetxeko zuzendaritza nagusia lortu nahi duen pertsonaren baldintzatzat, "Hautagai onak baztertzea oztopoa izan baitaiteke".

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

URTEETAKO AHOLKU JARDUERAREN ERAGINAREN JARRAIPENA

2020an, aurreko ekitaldian onartutako irizpenen jarraipena egin zen. Irizpen horien erreferentziazko araudia oraindik ez zegoen onartuta, irizpena egin zen urte naturala amaitzean.

LEGE
PROIEKTU ETA
DEKRETUAK,
GOBERNU
KONTSEILUAK
ONARTUAK,

2020

Irailak 13

Nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileei ostatu emateko higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko laguntzen dekretu-proiektuari buruzko 13/19 IRIZPENAREN JARRAIPENA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak proposatuta. Aldez aurretik, batzorde honek irizpena eman zuen, 2019ko irailaren 13ko Osoko Bilkuran, eta, ondoren, EHAAn argitaratu zen, 2020ko apirilaren 1ean.

Helburua da EAEko nekazaritza-ustategietan sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileei (aurrerantzean, sasoiko langileak) ostatu emateko higiezinak eraiki, eraberritu, egokitu, hobetu edo ekipatzeko laguntzen araubidea ezartzea eta arautzea. Onartutako testuak zenbait aldaketa izan zituen, jasotako ohar eta alegazioen ondorioz.

Bere irizpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak zenbait alderdi aipatzen zituen, eta horiei buruz ulertzen zuen, hura sartuta, proiektua hobetu egin zitekeela. EGABen proposamenak sartzeari onargarria da (17 gogoeta espezifiketatik 8 jaso dira).



EAEko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko 2019ko memoria aho batez onartu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak 2020ko ekainaren 29an, Kontseiluaren Erregelamenduan ezarritako epeen barruan.

Dokumentua sintesi oso bat da, eta hainbat iturri ofizialetako aldagai sozioekonomiko nagusiak biltzen ditu, bai eta Kontseiluko kideek egindako balorazio eta balioespenak ere, aipatutako datuak aztertu, eztabaidatu eta iritzi adostua lortu ondoren.

Hainbat ataletan banatuta, "2019ko Memoria Sozioekonomikoak" egoera ekonomikoa, lan-merkatua, euskal herritarren bizi-kalitatea, hezkuntza edo gizarte-babesa aztertzen eta hausnartzen ditu, besteak beste.

Demografia- eta migrazio-eredu orokorraren beharra:

2019an hazkunde natural negatiboa areagotu zen (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea). Migrazio-saldo positiboek konpentsatu egin zuten eta populazio-bolumenari eutsi zioten. Hirugarren herrialdeetako biztanleria-ekarpenek jarraitu egingo dute, eta, horri esker, ekonomiak eta gizarteak, oro har, ekoizpen-, ongizate- eta aberastasun-mailei eutsiko diete, betiere behar bezala kudeatzen badira. bienestar y riqueza.

EGABen iritziz, beharrezkoa da migrazio-prozesuen kudeaketa eta jarraipen egokia egitea.

Kontseiluak Euskadirako demografia- eta migrazio-eredu orokor bat eskatzen du, horri buruzko politika publikoak bideratu ahal izateko.

2019an hazkunde ekonomikoa moteltzea:

Munduko, Europako eta Euskadiko ekonomiaren hedapena moteltzen joan zen 2019an zehar. Euskadin, automobilgintzaren sektoreko asaldura espezifikoek industria-jardueren bultzadaren galera areagotu zuten, eta, ondorioz, baita ekoizpen osoarena ere.



JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Bilketa publikoaren bilakaera positiboa eta zorpetzearen murrizketa:

Finantza publikoen berreskurapena finkatzea, diru-bilketaren bilakaera positiboarekin. Horri esker, EAEk, defizitaren arloko konpromisoak betetzeaz gain, finantza publikoen indarra hobetu ahal izan du.

Kezkatzekoa da 2019an inbertsio errealka, herrialdearen garapenerako funtsezkoak direnak, gutxi hazi izana, behar bezala orientatuta daudenean. Aurreko urteetako bilakaera negatiboa dela eta, aurrekontu-ahalegin handia eta jarraitua egin beharko litzateke, batez ere Eusko Jaurlaritzarena.

Jarduera eta horri lotutako diru-sarrera publikoak berreskuratuta, sektore publikoak aurrera egin du zorpetzearen murrizketan, eta horrek, etorkizunari begira, maniobra-marjina handiagoa ahalbidetzen du.

EGABek funtsezko zerbitzu publikoen maila hobetzea gomendatzen du, besteak beste, hezkuntza eta ikerketa, osasuna eta gizarte-zerbitzuak. Era berean, euskal administrazio publikoaren bitartekotasun- eta behin-behinekotasun-maila handia azpimarratu du.

I+G+Bko inbertsioa emaitzetara eramateko zailtasunak:

I+G jardueretako gastua kopuru absolututan hazi da hirugarren urtez jarraian, baina ahaleginari dagokionez, BPGren% 1,85ean egonkor mantendu da, eta 2020rako ezarritako % 2ko helburutik urrun geratu da Estatu osorako. Gainera, ahalegin hori eurogunean eta gai horretan erreferentzia diren herrialdeetan erregistratutakoa baino txikiagoa da.

I+Gko gastuaren finantzaketa pribatuaren ehunekoak gora egin du eurogunean (Europako helburura hurbilduz), eta EAEn ez da joera hori ikusi. Europako helburutik eta I+G arloan erreferente diren herrialdeen portaeratik aldentzen gara

2019ko eskualde-berrikuntzako adierazleen Europako panelak erakusten duenez, denborarekin emaitzak hobetu badira ere, eskualde gehienetan emaitza okerragoak erregistratu dira batzuetan; EAEn eta Alemanian, Bulgarian, Danimarkan eta Suitzan, esaterako.

EAE inbertsio handia egiten ari da I+G jardueretan, baina zailtasunak ditu inbertsio hori emaitzetara eramateko, aktibo intelektualen adierazleak txikiak baitira.

Ahalegin handiagoak egin behar dira 4.0 ekonomian posizio lehiakorra lortzeko:

Ingurune digitalean murgilduta, enpresek hobetzeko eremu zabala dute oraindik (zibersegurtasuna, adimen artifiziala, robotikaren erabilera, besteak beste).

Administrazioen inbertsio- eta laguntza-ahaleginak areagotu beharko lirateke, EAEk 4.0 ekonomian posizio lehiakorra izan dezan.

Merkataritza elektronikoari dagokionez, euskal enpresek bide horretatik egindako erosteketei eta salmentei dagokienez aprobezkoak izateko txikiagoa izateak, Europako izen bereko enpresek baino, badirudi nabarmen hazten ari den merkataritza-tresna batean aukerak galtzen ari direla.

Lan-merkatuaren joera orokorraren aurka, gazteen langabeziak gora egin du:

Enplegua sortzea: 2014tik 2019ra enplegua sortu da etengabe Euskadin. 2019aren amaieran, krisiaren aurreko okupazio-mailetara hurbiltzen da.

Hala eta guztiz ere, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ohartarazi du emakumeen eta adinekoen jarduera-tasa txikia dela, industriako okupazioa txikiagoa dela eta aldi baterako kontratuak ere igo egin direla.

Kontseiluaren ustez, premiazkoa da kontratazio mugagabea sustatzeko neurriak hartzea.

Gazteen enplegua: joera orokorraren kontra, gazteen langabeziak gora egin du, epe labur, ertain eta luzera kostu sozialak eragiten dituen tasa altua baita.

Enplegu-politikak: bigarren urtez jarraian, langabezia-prestazioen estaldurak gora egin du, aurreko urteetan etengabe behera egin ondoren. Azken urteotako babes-maila handiei eustea erronka handia da gaur egun Gizarte Babeseko Sistema osoarentzat.

Negoiazio kolektiboa: behera egin duten hitzarmen kolektiboen kopuru handia, eta hemen hobetzeko tarte bat dago, Batzordeak uste duenez.

Pobrezia-egoeran dauden familien bizi-baldintzak okertzea, bereziki guraso bakarreko familienak:

Ongizate-mailak: azken urteetan hobera egin du, eta krisiaren aurreko zifretara itzuli da adierazle askotan, nahiz eta hobekuntza hori ez den homogeneoa biztanleria osoarentzat, ez eta lurralde osoarentzat ere.

Pobrezia: AROPE tasa (pobreziaren adierazle nagusia) lehen aldiz 2008ko mailaren azpitik kokatu da EAEn, krisia hasi zen urtean. Hala ere, pobrezian dauden familien bizi-baldintzek okerrera egin dutela ikusten da, batez ere guraso bakarreko familien eta haurren bizi-baldintzek. Benetako pobrezia-tasaren bilakaerak erakusten du lurraldeen arteko desorekek gora egin dutela, eta Bizkaian eta, bereziki, Bilbon eta haren eragin-eremuan (pobrezia-tasa% 10etik gorakoa duen euskal eskualde bakarra) nabarmen egin dutela behera.

Pobrezia energetikoa: arlo honetan hobekuntza bat ikusten da.

Kontziliazioa: eszedentziak eta lanaldi-murrizketak gehienbat emakumeek hartzen dituzte.

EGABek gizonak erantzunkide egiteko eskatu du, eta, horretarako, neurri berriak sortzea edo daudenak birkonfiguratzea proposatu du, hala nola ordutegi-malgutasuna edo telelana.



JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Gizarte-babeseko sistema hobetu behar da, haren jasangarritasuna bermatuz eta prestazioak errealitate eta behar berrietara egokituz:

2019an, gizarte-babeseko sistemak Europako herrialde nagusien pareko maila izan zuen Euskadin.

EGABek berretsi du sistema hobetzeko ezinbestekoa dela sistemaren jasangarritasuna bermatzea eta prestazioak errealitate eta behar berrietara egokitzea.

Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema: 2019an berriro jaitsi ziren gastua eta unitate hartzaileen kopurua. Hala ere, hobekuntza ez zen modu orekatuan gertatu gizonen eta emakumeen artean, eta horrek kezkatzen du Batzordea.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak: hartzaileen kopurua murriztu arren, Batzordeak adierazi du laguntzek agerian uzten dutela gabezia handiak daudela etxebizitzaren ekipamenduan eta mantentze-lanetan.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema:

Lau laguntzetatik bat "pobrezia energetikoari" aurre egiteko erabiltzen da, eta egiturazko fenomeno bihurtzeko arriskua dagoela ohartarazi du.

Hori arautzen duen legea egin eta hamar urtera, Batzordeak egiaztatu du ez dela lortu epe horretan lortu nahi zen unibertsalizazio-helburua, eta ez dela gauzatu aurreikusitako arau-garapenaren zatirik handiena. Era berean, nabarmentzekoa da Familiako Zainketetarako Prestazio Ekonomikoaren ehuneko handia (Estatuan baino hamar puntu handiagoa) eta itxarote-zerrendak behar den erritmoan xurgatzeko ezintasuna.

Pentsioak: kezagarriak dira saldo defizitario gero eta handiagoa, sistemaren iraunkortasuna eta ekitatea. Gizonen eta emakumeen arteko aldea ere bai (gizon baten batez besteko pentsioa emakume batena baino% 66,3 handiagoa da).

EGABen aburuz, premiazkoa da administrazioek eta gizarte-eragileek eztabaidatzea eta berehalako akordioak hartzea. Enpleguko BGAEen bidezko sistema osagarrien ezarpen-maila eskasa eta emakume langileen estaldura txikiagoa ere nabarmetzen dira.

Euskal osasun-sistemaren etorkizuneko iraunkortasuna bermatzeko erronka:

Osasun-adierazle onak, hobetzen jarraitzen dutenak.

Osasun-gastua hazten ari da termino absolutuetan, eta EGABek euskal osasun-sistemaren etorkizuneko iraunkortasunari buruz ohartarazi du.

Heriotza-tasa gero eta adin aurreratuagoetan gertatzeak ondorio jakin batzuk ditu gaixotetasari, jarduera-mugari, mendekotasunari eta, ondorioz, gastu soziosanitarioari dagokienez.

Gaixotasun kronikoak dira prebalentzia handienekoak Euskadin (batez ere zirkulazio-aparatukoak eta digestio-aparatukoak). Ahalegin handiena 65 urtetik gorakoentzako arretan egin da. Eta zaintza-eskariak gora egiten jarraitzen duela berretsi da.

Bizi-itxaropenak aurrera egiten jarraitzen du, baina ez da hobekuntzarik lortzen desgaituen bizi-itxaropenean; orobat, emakumeen bizi-itxaropenaren luzapena, batez ere, jarduera-mugaketarekin bizi izandako urteen kontura ari da lortzen.

Ahalegin handiagoak egin behar dira hezkuntzan generoaren araberako segmentazioa saihesteko:

2019an BPGren gaineko hezkuntzako gastu publikoak behera egin zuen arren, hezkuntza-adierazle batzuetan EAE lehen postuetan kokatu zen.

Kontseiluak ahalegin handiagoa eskatu du ikasketa profesionalak indartzeko, bai eta generoaren araberako segmentazioa saihesteko ere, bai Lanbide Heziketan, bai unibertsitatean.

Emakumeen partaidetza-tasa txikiagoa da arlo zientifiko-teknikoetan, eta askoz ere handiagoa pertsonen zaintzan eta osasunean. Hain zuzen ere, adar teknikoak dira laneratzeari dagokionez emaitza onenak izaten ari direnak, eta, beraz, emakumeek abiapuntu okerragoa dute karrera profesionala garatzeko orduan, gizonekin alderatuta.

EGABek 2020an egin zuen "Euskadin COVID-19aren eraginari buruzko hurbilketa" izeneko ekimen propioa, abenduan aurkeztu zena 2019ko Memoria sozioekonomikoarekin batera.

Txosten horretan, 2020ko martxotik irailera bitartean pandemiak EAEn ekonomia- eta gizarte-eremuetan izan duen eragina aztertzen du Kontseiluak, epe laburrerako erantzun instituzionalak biltzen ditu eta erakundeek, eragile ekonomiko eta sozialek eta gizarteak oro har dituzten erronka batzuei buruzko gogoeta egiten du. Sakontzeko asmorik gabe, EGABen 2019ko eta 2020ko memoriaren arteko zubi izan nahi du. 2020ko memoriak urte konplexu eta ziurgabetasunez beteta honi buruz egingo duen azterketa lasaiago eta osoagoaren aurrerapena da.



Eragina ekonomian

- ⇒ Martxoko bigarren hamabostalditik aurrera hartutako neurriek jarduera ekonomikoaren beherakada larria ekarri dute, eta horrek BPGaren aurrekaririk gabeko murrizketa eragin du.
- ⇒ Enpresa-ehunaren suntsipen handia eta jarduera-adierazle nagusien beherakada. Zerbitzuen sektorean, jokabide kontrajarriak, zerbitzu publikoak (administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak) edo pribatuak (merkataritza, HORECA, turismoa) diren kontuan hartuta.
- ⇒ Metal-eraikuntzarekin, ingeniari mekanikoarekin, eraikuntzarekin, ibilgailuen salmenta eta konponketarekin, txikizkako merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lotutako jarduerak erabakigarriak dira; izan ere, eskaintza eta/edo eskariaren shocken aurrean sentikorragoak izateaz gain, garrantzi handia dute gure ekonomiaren ekoizpenean eta enpleguan.
- ⇒ Gasteizko aireportuko salgaien trafikoak ez du beste jarduera batzuetan izandako beherakada bezain handia izan. Izan ere, 2020ko abuztuaren igoera erregistratu da 2019ko abuztuarekin alderatuta.
- ⇒ Eragin handia finantza publikoetan. Zerga-bilketaren beherakada.

- ⇒ Epe laburrean, pertsonen osasunean duen eraginaren zifrak eta asistentzia-sisteman duen isla ezagutzen dira. Pertsonen bizi-baldintzetan islatzeari dagokionez, datozen hilabete eta urteetako bilakaera ekonomikoak benetako eragina izango du gure ongizate-sisteman.
- ⇒ Eragin demografiko handia, batez ere adinekoen artean, eta, horien artean, egoitzetan artatutako artean.

Eragin demografikoa eta soziala

Eragina lan merkatuan

- ⇒ Okupazioa nabarmen jaitsi da, nahiz eta gerta zitekeena baino gutxiago gertatu den enplegu-erregulazioko espedienteak lan-loturari eusteko bitarteko gisa erabiltzeko aukera egon izan ez balitz. Gazteen langabeziak gora egin du bereziki.
- ⇒ Lan-kostuen eta soldaten beherakada garrantzitsua. Langabezia-prestazioak ia bikoiztu egin dira, eta estaldura handitu.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Erakundeen erantzuna:

Txostenak jasotzen du erakunde guztiek, beren eskumen eta baliabideen arabera, pandemiaren lehen hilabeteetan abian jarri zuten politika sorta garrantzitsua, ondorioak arintzeko. Besteak beste:

Europar Batasuna

- ⇒ Europako Banku Zentralak moneta-politikaren hedapen-neurriak hartu zituen finantza-merkatuetako tentsioak egonkortzeko eta kreditu-hornidura bermatzeko.
- ⇒ Europako Kontseiluak "Next Generation EU" sortu du, 750.000 milioi euroko programa.

- ⇒ Ekoizpen- eta gizarte-ehuna babesteko eta sostengatzeko neurriak, ekonomia- eta gizarte-inpaktua minimizatzeko eta enpresen eta enpleguaren biziraupena errazteko.
- ⇒ Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen arreta eta babesa emateko ekimenak (hipotekak ordaintzeko luzamenduak, energia-horniduraren bermea, haurrak elikatzea, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera...)

Estatua

EUSKADI

- ⇒ Egoera ahulean dauden pertsonak, familiak eta kolektiboak (GLL, bazterkeriaren aurkako funts berezi berria, etxebizitza publikoen alokairuak, ABEEEn osagarria...)
- ⇒ ETEen eta autonomoen premiazko finantzaketa, industria-arloko laguntza finantzarioa eta teknikoak, neurri espezifikoak gehien zigortutako sektoreentzat (merkataritza, turismoa...)
- ⇒ Foru-aldundiak: neurri sorta handia, batez ere neurri fiskalak.

AURREAN DITUGUN ERRONKAK:

Azterlan honen bidez, EGABek ondorioztatzen du honako erronka hauek planteatzen zaizkigula, pandemiaren eta horrek ekonomian eta gizartean duen eragin garrantzitsuen ondorioz:

- Osasun- eta mendekotasun-sistema: beharrezkoa da funtsak handitzea, osasun-arretan eta -prebentzioan, ospitale-azpiegituretan egindako inbertsioetan eta kutsatutako pertsonen epe luzeko osasun-ondorioetan giza baliabideak indartzeko. Gainera, pandemiak agerian utzi ditu mendekotasunari arreta emateko sistemaren gabeziak eta, zehazki, bizitegi-sistemarenak, horien erdua berriz pentsatu behar baita.
- Sistema ekonomikoa: funtsezko erronka sare ekonomikoaren biziraupena erraztea da, herritar guztien ongizate-maila altuez gozaten jarraitzeko. Horretarako, sektore publikoaren erronka bikoitza da: epe laburrean, enpresei laguntzea eta, ertainean, gizartearentzat aberastasuna sortzen duten proiektu berriak sortzen laguntzea. Hori guztia, enpleguari laguntzeko konpromisoari eutsiz eta egokituz.
- Gizarte-babeseko sistema: Administrazio guztien erronka da lortutako ongizatearen murrizketa eragozte, eta epidemia horrek agerian utzi eta larriagotu dituen desberdintasun ekonomikoek, genero-desberdintasunei eta hezkuntza-desberdintasunei behar besteko aurrekontu-baliabideekin aurre egiten zaiela bermatzea.
- Finantza publikoak: krisi honen ondorioz, gobernuek aurrekontu-ahalegin handiak egin behar izan dituzte, eta, ondorioz, kontu publikoak hondatu eta zorpetzea lortu dute. Laguntza publikoen kontabilitate, trazabilitate eta koordinazio onaren garrantzia, eraginkortasunaren ebaluazioa errazteko.
- Lankidetzaren eta erantzunkidetasuna: guztion ahalegina behar da, eta beharrezkoa da erakunde publiko, eragile sozial eta ekonomiko guztien eta herritarren antzunkidetasuna.



OSOKO BILKURA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak hamaika bilera egin zituen, eta horietako lau, ezohiko izaeraz. Horietan, zazpi irizpen onartu ziren: 2019ko Jardueren Memoria, 2019ko EAEko Memoria Sozioekonomikoa, ekimen propioari buruzko azterlan bat, 2019ko urteko kontuak eta 2021eko aurrekontuak.

BATZORDE IRAUNKORRA

2020an, Batzorde Iraunkorra bederatzi aldiz bildu zen. Besteak beste, honako gai hauek jorratu zituen: 2019ko Jardueren Memoria, 2019ko Memoria Sozioekonomikoa, Ekimen propioaren Azterlana, 2019ko urteko kontuak eta 2021eko aurrekontuak, 2019ko auditoria-txostena eta aurrekontuaren hiruhileko exekuzioei buruzko aurrekontu-kontrola.

GIZARTE GARAPENERAKO BATZORDEA

Gizarte
Garapenerako
Batzordea hiru
aldiz bildu zen
2020an

Urtarrilak 13

Lehenik eta behin, irizpen hauen jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:

1/2019 IRIZPENA, 2019ko urtarrilaren 7koa, bizi-aldia osoko ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.

6/2019 IRIZPENA, maiatzaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.

8/2019 IRIZPENA, uztailaren 16koa, edari alkoholadunen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen arloko seinaleztapenari buruzko dekretu-proiektuari buruzkoa.

10/2019 IRIZPENA, uztailaren 19koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Era berean, profesional sanitarioen informazio-sistemaren dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen. Aurreproiektu honi egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi zitzaion.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Gizarte
Garapenerako
Batzordea hiru
aldiz bildu zen
2020an

Urtarrilak 29

Bileraren helburua Klima Aldaketari buruzko Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu eta onartzea izan zen. Batzordeak irizpen-aurreproiektua puntuz puntu aztertu zuen, haren edukiak eztabaidatu zituen, irizpen-aurreproiektuaren gogoeta orokorrei eta gogoeta espezifikoari buruzko ataletan zenbait aldaketa egitea erabaki zuen, eta irizpen-proiektua egin zuen, Osoko Bilkurari

Azaroak 10

Lehenengo zatian, Kontseiluaren hiru irizpenen jarraipenari buruzko iruzkin labur bat egin zen; zehazki, 9/2019 irizpenarena, Adikzioen arloko jardunbide egokienak eta ibilbide profesionala sortu eta aitortzeko dekretu-proiektuari buruzkoa; 14/2019 irizpenarena, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektuari buruzkoa; eta Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruzko 15/2019 Irizpenarena; Batzordea eskertu beharrean dago irizpenek dagozkien arau-testuetan jasotako harrera-maila.

Jarraian, hutsik dauden etxebizitzak arautzen dituen eta etxebizitza horiek benetan okupatuz eginkizun soziala betetzeko neurriak ezartzen dituen dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen. Nahitaezko alokairuaren eta nahitaezko desjabetzearen figurei buruzko gogoetak batzordeko kide batzuen arteko desadostasun-puntu nagusia direla egiaztatu ondoren, adostasun-jarrera bateratuaren profilak adostu dira. Aurreproiektuaren testua puntuz puntu aztertu ondoren, zenbait aldaketa egin dira. Bilkuraren emaitza gisa, irizpen-proiektua formulatu zen, Kontseiluaren Osoko Bilkurari aurkezteko.

EKONOMI GARAPENERAKO BATZORDEA

Ekonomi
Garapenerako
Batzordea sei
aldiz bildu zen
2020an

| | |
|---------------|--|
| Urtarrilak 20 | <p>Lehenik eta behin, irizpen hauen jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:</p> <p>3/2019 IRIZPENA, 2019ko otsailaren 22koa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbazteko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.</p> <p>5/2019 IRIZPENA, apirilaren 5koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.</p> <p>7/2019 IRIZPENA, 2019ko uztailaren 16koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.</p> <p>Era berean, industria-segurtasunari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu zen.</p> <p>Aurreproiektu honi egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi zitzaion.</p> |
| Urtarrilak 30 | <p>Lehenik eta behin, honako hauen jarraipen-txostenak aurkeztu ziren. Lehenik, irizpen hauen jarraipen-txostenak aurkeztu ziren:</p> <p>2/2018 IRIZPENA, 2018ko otsailaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko dekretu-proiektuari buruzkoa.</p> <p>11/2019 IRIZPENA, uztailaren 30ekoa, Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.</p> <p>Era berean, Landa Garapenerako Lege Aurreproiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu zen.</p> <p>Aurreproiektu honi egindako zuzenketak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi zitzaion.</p> |
| Otsailak 17 | <p>Bilera hasteko, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen Aurreproiektuari buruzko 4/2019 Irizpenaren jarraipen-txostenaren iruzkin labur bat egin zen. Txosten horretan ikusten denez, Batzordeak bere irizpenean planteatutako aldaketen zati esanguratsu bat jaso da lege-proiektuan.</p> <p>Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza turistikoaren dekretu-proiektuari eta itsasoko eta kontinenteko uretako arrantzaren erakustaldiei buruzko irizpen-aurreproiektuaren eztabaida lantzen da. Irizpen Aurreproiektuaren gogoeta orokorrean buruzko zatian aldaketa txiki batzuk egin eta ohar espezifikoaren zatian gehikuntza bat sartu ondoren, beharrezko erabakia hartu zen irizpen proiektua formulatzeko, Osoko Bilkurari aurkezteko.</p> |

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Ekonomi
Garapenerako
Batzordea sei
aldiz bildu zen
2020an

Uztailak 1

EGABen Batzorde Iraunkorraren erabakiz, Lan Batzorde honek bere ekimeneko azterlan bat egin behar du Sare Transnazional Atlantikoaren (STA) esparruan, Korridore Atlantikoak EAEn duen eragin sozioekonomikoari buruzkoa.

Zerbitzu teknikoek azterlanaren zirriborroa egin ondoren, Batzorde Iraunkorriari helarazi zitzaion, eta hark Garapen Ekonomikoko Batzordearen esku utzi zuen azterlana aztertzea, eztabaidatzea eta onartzea.

Saio honetan dokumentua bere alde teknikoan ixtea erabaki da, eskura dauden azken datuak eta zuzenketa, ñabardura eta gehigarriak jasota; eta gomendioak "stand by"ean uztea.

Dokumentua aztertzen den heinean, ideia, gai eta aukera interesgarri batzuk azaleratzen ari dira, eta horiek etorkizuneko gomendioei forma eman diezaiekete argi eta garbi, eta aktan jasotzea adostu da.

Urriak 8

Bilera honen helburua bikoitza da. Alde batetik, Korridore Atlantikoak EAEn duen eragin sozioekonomikoari buruzko ekimen propioaren azterlanarekin lotuta egiteke zegoen lanari berriro ekitea, eta, bestetik, STAren azken eskaerari erantzutea.

Eskaera horrek zerikusia du 2020ko ekainean Europako Parlamentuak STEari buruzko gidalerroen berrikuspenari buruzko txosten-proiektu bat onartzearekin, eta, horren ondorioz, STAk lan-ildo osagarri bat irekitzea erabaki zuen. Hala, STAko Batzorde Betearazleak AMIA bat eskatu zien STAn parte hartzen zuen EGAB bakoitzari, eskualde bakoitzean Korridore Atlantikoak dituen abantaila eta desabantaila nagusiak eta hiru edo lau eskualde-lehentasun zerrendatzeko.

Ondorioz, Batzordearen lan-bilera honetan, zenbait ñabardura sartu ondoren, zerbitzu teknikoek egindako "Ekonomia Garapenerako Batzordeak STAko Lantaldeari emandako erantzun-oharra" eztabaidatu eta onartu da. Ohar horrek goian aipatutako helburu bikoitza biltzen du.

Horrela, amaitutzat ematen da, lan-batzordean, Korridore Atlantikoak EAEn duen eragin sozioekonomikoari buruzko azterlana.

Abenduak 17

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da.

Aurreproiektu honi egindako zuzenketa aztertu eta eztabaidatu ondoren, Batzordeak, aho batez, irizpen-proiektua egin zuen, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazi zitzaion.

MEMORIA SOZIEKONOMIKOAREN BATZORDEA

Batzorde hau sei
aldiz bildu zen
Memoria
Sozioekonomikoa
lantzeko, eta
beste sei aldiz
ekimen
propioaren
azterlana
lantzeko

| | |
|-------------|--|
| Otsailak 14 | <p>En Lehenik eta behin, bertaratutako pertsonei jakinarazten zaie, EGABen Batzorde Iraunkorraren erabakiz, Lan Batzorde honek ideiak proposatu behar dituela zabaltzeko, baina Batzorde Iraunkorra arduratuko dela horri buruz erabakitzeaz.</p> <p>Bigarrenik, Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) tratamenduari buruzko eztabaidari hasiera eman zaio, Memoriaren 2019ko edizioaren esparruan.</p> <p>Ondoren, zenbait kapituluren zirriborroei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira (VI. Araugintza, I. Demografia eta 3. Osasuna eta osasun-sistema).</p> |
| Maiatzak 22 | <p>Iritziak trukatu ondoren, egoera ikusita, GIHei buruzko monografiko bat egiteak zentzu handirik ez duela erabaki da, eta 2019ko Memoria Sozioekonomikoa 2019an gertatutakoaren azterketara mugatuko den arren, EGABek COVID-19ak gure erkidegoan duen eraginari buruzko bere ikuspegia emango du.</p> <p>Ondoren, zenbait kapituluren zirriborroei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira (IV.1. Bizi-baldintzak, V.2. Natura-ingurunearen egoera eta II.6. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza).</p> |
| Maiatzak 29 | <p>Zenbait kapituluren zirriborroei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira (II.2. Koiuntura ekonomikoa eta II.5. Ekoizpen-azpiegiturak). Gizarte babesari buruzko IV.2. kapituluaren zirriborroari, bestalde, ñabardura batzuk egin behar zaizkio, eta, ondoren, berrikusi egin behar dira.</p> |
| Ekainak 3 | <p>Lehenik eta behin, gizarte babesari buruzko IV.2. kapituluaren zirriborroaren bigarren bertsioa onartu da, azken aldaketak berrikusi eta adostu ondoren.</p> <p>Ondoren, zenbait kapituluren zirriborroei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira (IV.1. Hezkuntza eta kultura eta V.2. Etxebizitza).</p> |
| Ekainak 10 | <p>Lan merkatuari buruzko III. kapituluaren zirriborroari dagozkion aldaketak eztabaidatu eta onartu dira.</p> |
| Ekainak 15 | <p>Zenbait kapituluren zirriborroei buruzko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira (II.4. Sektore publikoa, II.3. Ekoizpen-sektoreak eta II.1. Kanpoko ingurune ekonomikoa, bai eta egoera ekonomikoaren laburpena eta kontsiderazioak ere.</p> <p>Puntu horretara iritsita, Batzordeak aho batez formulatu du 2019ko Memoria Sozioekonomikoaren proiektua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazteko.</p> |

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Batzorde hau sei
aldiz bildu zen
Memoria
Sozioekonomikoa
lantzeko, eta
beste sei aldiz
ekimen
propioaren
azterlana
lantzeko

| | |
|-------------|---|
| Uztailak 8 | <p>EGABen Batzorde Iraunkorraren erabakiz, Lan Batzorde honek bere ekimen-azterlan bat egin behar du COVID-19ak gure erkidegoan duen eraginari buruz, 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren lanekin lotzeko.</p> <p>Zerbitzu teknikoek egindako proposamenetik abiatuta, eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideek igorritako iradokizunak kontuan hartuta, aipatutako azterlana egiteko titulua, edukiak eta epeak eztabaidatu eta onartu dira.</p> |
| Uztailak 24 | <p>Azterlanaren behin-behineko sarrera (1. kapitulua), COVID-19ak EAEn duen eraginaren azterketan landuko diren adierazleak (2. kapitulua) eta Batzorde honen lanetarako lan-egutegi xehatua eztabaidatu eta adostu dira.</p> |
| Irailak 25 | <p>Azterlanaren 3. kapituluaren lehen zirriborroa eztabaidatu eta onartu da: "Epe motzeko erantzunak pandemiaren shockaren aurrean: larrialdietarako neurriak eta tresnak". Zirriborroa zenbait ñabarduraren eta gehigarriren zain dago, bai eta datuen analisiari buruzko 2. kapituluarekin batera egindako balorazioaren zain ere.</p> |
| Urriak 9 | <p>Azterlanaren 2. kapituluaren lehen zirriborroa eztabaidatu eta onartu da, "Eraginak" izeneko, eta zenbait gehikuntzaren eta hainbat edukiren berrikuspenaren zain geratu da.</p> <p>Txostenaren bertsio berraztertu oso bat bidaltzea erabaki da (1., 2. eta 3. kapituluak), laburpenarekin batera, hurrengo bileran sartutako dokumentua eztabaidatzeko.</p> |
| Urriak 21 | <p>Batzordeak ontzat jo du bidali zaien txostenaren zirriborro berria, "Laburpena" atal berria barne.</p> <p>Memoria sozioekonomikoa egiteko metodologiari jarraituz "kontsiderazio" batzuk adosteko aukerari dagokionez, parte-hartzaileak bat datoz esatean, interes handikoa izango litzatekeen arren, eskema ez datorrela bat gaur egungo dinamika hain aldakorrekin. Horregatik, baztertu egin da aukera hori.</p> <p>1. atala, "Sarrera", ez da berez halakoa, balorazio subjektiboak eta kontsideraziotzat har daitezkeen paragrafo batzuk baititu. Horregatik, zerbitzu teknikoek sarrera tekniko eta instrumental berri bat idaztea erabaki da.</p> <p>1. atalari (lehengo Sarrera) "aurkezpena" izena emango zaio, eta Batzordeko kideek zuzenketa eta gehikuntza proposamenak egingo dituzte. Era berean, atal honi balio erantsi handiagoa emateko, txostenetik ondorioztatzen diren "erronka" gutxi batzuk sartzea planteatu ahal izango dute.</p> |
| Azaroak 2 | <p>Zerbitzu teknikoek igorritako iradokizunetatik abiatuta egindako 1. kapituluko proposamena (Sarrera eta Aurkezpena) eztabaidatu da, eta txostenaren gainerako zatien edukia onartu da.</p> <p>Hartutako erabakiak abiapuntutzat hartuta, Batzordeak aho batez egin du "COVID-19ak Euskadin izango duen eraginari buruzko txostena", Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurari helarazteko.</p> |

BATZORDE EGUTEGIA

urtarrila

| AST | AST | AST | OST | OST |
|------|-----|-----|-----|------|
| | | 1 | 2 | 3 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| SGB | 14 | 15 | 16 | B.I. |
| EGB | 21 | 22 | 23 | 24 |
| O.B. | 28 | SGB | EGB | 31 |

otsaila

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|------|-----|-----|
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 10 | 11 | O.B. | 13 | MSE |
| EGB | 18 | B.I. | 20 | 21 |
| 24 | 25 | O.B. | 27 | 28 |

martxoa

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 30 | 31 | | | |

apirila

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| | | 1 | 2 | 3 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | |

maiatza

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|-----|-----|------|
| | | | | 1 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | B.I. |
| 18 | 19 | 20 | 21 | MSE |
| 25 | 26 | 27 | 28 | MSE |

ekaina

| AST | AST | AST | OST | OST |
|------|-----|-----|-----|-----|
| 1 | 2 | MSE | 4 | 5 |
| 8 | 9 | MSE | 11 | 12 |
| MSE | 16 | 17 | 18 | 19 |
| B.I. | 23 | 24 | 25 | 26 |
| | 30 | | | |

uztaila

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| | | EGB | 2 | 3 |
| 6 | 7 | MSE | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | MSE |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

iraila

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | MSE |
| 28 | 29 | 30 | | |

urria

| AST | AST | AST | OST | OST |
|------|-----|-----|-----|-----|
| | | | 1 | 2 |
| B.I. | 6 | 7 | EGB | MSE |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 19 | 20 | MSE | 22 | 23 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |

azaroa

| AST | AST | AST | OST | OST |
|------|-----|------|-----|-----|
| | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 9 | SGB | 11 | 12 | 13 |
| O.B. | 17 | O.B. | 19 | 20 |
| B.I. | 24 | 25 | 26 | 27 |

abendua

| AST | AST | AST | OST | OST |
|-----|-----|------|------|------|
| | 1 | O.B. | 3 | O.B. |
| 7 | 8 | 9 | O.B. | 11 |
| 14 | 15 | 16 | EGB | 18 |
| 21 | 22 | O.B. | 24 | 25 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | |

| | |
|-----------------------|-----------|
| OSOKO BILKURA | 11 |
| B. Iraunkorra | 9 |
| S.G. Batzardea | 3 |
| E.G. Batzardea | 6 |
| MSE Batzardea | 12 |

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

III. KAPITULUA JARDUERA INSTITUZIONALA

Urtarilak 14

Atlantikoko Sare Transnasionaleko Lantaldearen bilera Parisen

STako Korridore Atlantikoari buruzko Lantaldea Parisen bildu zen urtarrilaren 14an, Korridore Atlantikoaren ezarpenari buruzko azterlan bat garatzeko oinarri gisa balioko zuen testu bat adosteko. Bilera horretan Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen zuzendaritzak eta Andaluziako, Extremadurako, Gaztela eta Leongo eta Galiziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen ordezkariak parte hartu zuten, bai eta Normandia, Bretainia, Loira eta Akitania Berriko CESEReko ordezkariak ere.



Irailak 14

Sare Transnazional Atlantikoko Lantaldearen bilera telematikoa

El Grupo de STako Korridore Atlantikoari buruzko Lantaldea telematikoki bildu zen irailaren 14an, COVID-19aren inpaktua dela-eta lanak birbideratzeko. Bilera horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen zuzendaritzaz gain, Andaluziako, Extremadurako, Gaztela eta Leongo, Galiziako, Normandiako, Bretainiako eta Akitania Berriko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen ordezkariak parte hartu zuten.

Irailak 17

Gaztela eta Leon, Extremadura, Andaluzia, Galizia eta Euskadiko EGABen bilera telematikoko batzordea, Atlantikoko Sare Transnasionaleko Lantaldeari buruzkoa

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bilera telematikoko batean parte hartu zuen, Lantaldeak Korridore Atlantikoaren inpaktuari buruz egindako azterlanaren birbideraketa baloratzeko. Azterketa hori Akitania Berriko CESER lantaldeko presidentek proposatu zuen.



Irailak 28

Gaztela eta Leon, Extremadura, Andaluzia, Galizia eta Euskadiko EGABen bilera telematikoko batzordea, Atlantikoko Sare Transnasionaleko Lantaldeari buruzkoa

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bilera telematikoko batean parte hartu zuen, Lantaldeak Korridore Atlantikoaren inpaktuari buruz egindako azterlanaren birbideraketa baloratzeko. Azterketa hori Akitania Berriko CESER lantaldeko presidentek proposatu zuen.

Urriak 26

Sare Transnazional Atlantikoko Lantaldearen bilera telematikoa

Lantaldea Isabel García Muñoz eurodiputatuarekin bildu zen telematikoki lan-jardunaldi batean, eta Europako Parlamentuaren txosten-proiektua aurkeztu zuen, Europa barneko garraio-sareari buruzko gidalerroen berrikuspenari buruzkoa (RTE-T).



Azaroak 18

Bigarren lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak EGABen Osoko Bilkuran parte hartu izana

Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko Sailburu Idoia Mendiak, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuorde Jon Azkuerekin eta Enplegu eta Gazteria Sailburuorde Elena Perezekin batera, EGABen Osoko Bilkuraren aurrean hitz egin zuen bere sailaren legealdiko lan-planak eta proiektuak azaltzeko.



Azaroak 18

Sare Transnazional Atlantikoko Orientazio Batzordearen bilera telematikoa

Sare Transnazional Atlantikoa bere ohiko kudeaketari buruzko hainbat gai jorrazteko bildu zen, eta lantaldearen jardura eta webgune berri baten prestaketa nabarmendu zituen. Bilera Bordelen egitekoa zen, baina bideokonferentziaz egin behar izan zen.



JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Urriak 23

Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailburuaren hitzaldia EGABen Osoko Bilkuran

Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailburuak, Beatriz Artolazabalek, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren aurrean hitz egin zuen bere sailaren legealdiko lan-planak eta proiektuak azaltzeko.



Abenduak 1

2019ko Memoria Sozioekonomikoa eta "COVID-19ak Euskadin duen eraginari buruzko hurbilketa" azterlana Lehendakariari aurkeztea (Lehendakaritza, 2020ko abenduaren 1a)

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2019ko Memoria sozioekonomikoa aurkeztu zion Iñigo Urkullu Lehendakariari, eta bilera horretan parte hartu zuten bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko Sailburu Idoia Mendiak, Ekonomia eta Ogasuneko Sailburu Pedro Azpiazuk eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailburu Beatriz Artolazabalek. Topaketa horretan, "COVID-19ak Euskadin duen eraginari buruzko hurbilketa" azterlana ere aurkeztu zitzaien.



Abenduak 1

2019ko Memoria Sozioekonomikoa eta "COVID-19ak Euskadin duen eraginari buruzko hurbilketa" azterlana Eusko Legebiltzarreko Presidenteari aurkeztea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2019ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zion Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko Presidenteari. Topaketaren harira, "COVID-19ak Euskadin duen eraginari buruzko hurbilketa" azterlana ere aurkeztu zitaion.



Anbenduak 2

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailburuaren esku-hartzea EGABen Osoko Bilkuran

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko Sailburuak, Arantxa Tapiak, EGABen Osoko Bilkuraren aurrean hitz egin zuen bere sailaren legealdiko lan-planak eta proiektuak azaltzeko.



JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Abenduak 4

Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren hitzaldia EGABen Osoko Bilkuran

Ekonomia eta Ogasuneko Sailburu Pedro Azpiazuk, Ekonomia eta Plangintzako zuzendari Jordi Campàsekin eta Kabinete eta Komunikazioko zuzendari Yurdana Burgoarekin batera, EGABen Osoko Bilkuraren aurrean hitz egin zuen Euskadi Next programa azaltzeko.



Abenduak 10

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuaren hitzaldia EGABen Osoko Bilkuran

Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuran parte hartu zuen, bere sailaren legealdiko lan-planak eta proiektuak azaltzeko.



IV. KAPITULUA
BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

2020KO AURREKONTUA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1.757.334,29 €-ko aurrekontua izan zuen 2019an, eta zenbateko horren 1.389.853,00 € EAeko Aurrekontu Orokorren kargura izan zen, 364.981,29 € aurreko ekitaldietako gerakinen kargura eta 2.500,00 € finantza-sarrereren kargura.

2019ko gastuen eta sarrereren ohiko aurrekontua kapitulu zabal hauetan banakatu zen:



| | AURREKONTUA | GAUZATUA | MAILA |
|--|---------------------|---------------------|----------------|
| GASTUAK | 1.669.368,00 | 1.463.658,18 | 87,61 % |
| I. KAPITULUA– Langileen gastuak | 753.442,20 | 733.043,30 | 97,29 % |
| II. KAPITULUA– Jardunbide-gastuak | 908.925,80 | 723.867,26 | 79,64 % |
| VI. KAPITULUA– Inbertsioak | 7.000,00 | 6.747,62 | 96,39 % |
| SARRERAK | 1.460.688,00 | 1.459.891,80 | 99,95 % |
| IV. KAPITULUA- Transf. Dirulaguntzak gastu arrunta | 1.458.188,00 | 1.458.188,00 | 100,00 % |
| V. KAPITULUA– Ondare sarrerak | 2.500,00 | 1.703,80 | 68,15 % |

2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren datuak behin-behineko itxierari dagozkio, eta urteko ikuskaritzaren emaitzen zain daude.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Gastuen likidazioaren eboluzio historikoaren xehetasuna eta eboluzioa kapitulua:



KONTSEILUAREN ZERBITZURAKO LANGILEAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen zerbitzuko plantilla, presidentez eta idazkari nagusiaz gain, zortzi pertsonak osatzen dute, hainbat lan-arlotan banatuta:

- 3 azterlan eta proiektuen arduradun
- 1 administrazio eta zerbitzuetako arduradun
- 1 zuzendaritzako idazkari
- 3 administrari



@CESEGAB sare sozialak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sare sozialetan parte hartzen du Twitterren, Facebooken eta LinkedIn-en dituen kontuen bidez, eta bere jarduerekin lotutako hainbat alderdiren berri ematen die jarraitzaileei.

Informazio berekiaz gain, zerrenda irekien bidez biltzen eta aurkezten du intereseko erakunde eta eragile ekonomiko eta sozial ugari eta Batzordea osatzen duten erakundeek sare sozial horri eskainitako informazioa.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen dituen hirugarrenen informazioak hautatzen eta zabaltzen ditu, erakunde aholku-emaila honen interes-esparruei dagokienez.



Prensa Idatzia

2020an, zortzi prentsa-ohar egin dira, guztiak ere webgunean eskuragarri, komunikazioaren atalean.

Euskadiko EGABen 10 agerraldi bildu dira prentsa idatzian eta 25 edizio digitalean.



Webgunea

Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, haren jarduerari eta argitalpenei buruzko informazioa

eskaintzen da.

Horren bidez, EGABek garatzen dituen jarduerari buruzko informazio eguneratua lor daiteke, hala nola irizpenak ematea, txostenak eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea eta abar.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak argitaratutako lan guztiak sarrera librekoak dira, eta PDF formatuan deskarga daitezke, dokumentuen eta lanen atalean.

Erabiltzaileek 1919 aldiz bisitatu dituzte irizpenak, 1397 aldiz Memoria Sozioekonomikoa eta 3484 aldiz azterlanak eta txostenak.

JARDUEREN TXOSTENA 2020

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

ARGITALPENAK

2020 urtean zehar argitalpen hauek txertatu ditugu gure web-orrian PDF eta EBOOK formatuan:

- Jardueren Txostena 2019
- Memoria Sozioekonomikoa 2019 eta Laburpena eta Gogoetak 2019
- Euskadin COVID-19aren eraginari buruzko hurbilketa
- Irizpenak:
 - 1/20 IRIZPENA, "Osasun-profesionalen informazio-sistemari buruzko dekretu-proiektuari" buruzkoa
 - 2/20 IRIZPENA, "Industria-segurtasunari buruzko dekretu-proiektuari" buruzkoa
 - 3/20 IRIZPENA "Klima-aldaketaren Euskal Legearen aurreproiektuari" buruzkoa
 - 4/20 IRIZPENA "Landa-ingurunearen Garapeneko Lege-aurreproiektuari" buruzkoa
 - 5/20 IRIZPENA "Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako arrantza turismoari eta arrantza erakustaldiei buruzko Dekretu Proiektuari" buruzkoa
 - 6/20 IRIZPENA "hutsik dauden etxebizitzak arautzen dituen eta horiek benetan okupatuz beren funtzio soziala betetzeko neurriak ezartzen dituen dekretu-proiektuari" buruzkoa
 - 7/20 IRIZPENA "Zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 dekretu proiektuari" buruzkoa

- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa).
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).
- 2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA, Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).
- 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudio onartzen duena (2013-12-11ko EHAA, 232. zk.), Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren 2019ko martxoaren 22ko Erabakiaren bidez zuzendua (2019-04-01eko EHAA, 63. zk.).